

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Alli kontseilariak Félix Garrido egoitzak egindako errehabilitazio psiko-sozialeko lanaren berri izan du

*Nafarroako Gobernuak urtean milioi bat euro ematen du buruko desoreka larria duten pertsonak artatzen dituen zentroaren funtzionamendurako*

Lunes, 20 de octubre de 2014

Gizarte Politiketako kontseilari Iñigo Allik, buruko desoreka larria duten pertsonak artatzeko Félix Garrido egoitzak ematen dituen zerbitzuen berri izan du gaur goizean eta, bereziki, errehabilitazio psiko-sozialeko programen berri. Zentroak 90 laguntzako lekua du, eta haiek artatzeko Nafarroako Gobernuak milioi bat euroko laguntza ematen du urtero.



Alli kontseilaria Félix Garrido zentrorako egindako bisitan.

Sarrigurenen dagan zentroak 2011n ireki zituen ateak. Avandiva enpresak kudeatzen du, Gizarte Politiken Departamentuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez.

Buruko desoreka larria duten pertsonentzako oinarritzko beharrei arreta integrala ematen die, haien autonomia pertsonalari eusteko asmoz edo autonomia hori hobetzeko asmoz eta gizarteratzen nahiz bertan parte hartzen lagunduz; hala, komunitatean ahalik eta normalizazio nahiz bizikaltateko baldintza onenetan izan ahalko dira.

Zentroak 25 lagunei eman diezaike arreta, eta erabiltzaileei honako zerbitzu hauek ematen dizkie: ostatua eta mantenua, laguntza eta ikuskapena eguneroko bizitzako ekintzetan, arreta sozial, psikologiko eta psiko-pedagogikoa, aisialdi eta astialdiko jarduerak eta familientzako laguntza.

Gainera, banakako laguntza eskaintzen duen errehabilitazio psiko-sozialeko zerbitzua du, eguneko zentroan eguneko arreta emanez edo anbulatorioko arreta emanez. Programa horiekin bilatu nahi da, alde batetik, pertsona horiek komunitatean normalean moldatzeko behar dituzten trebeziak ikasi edo berreskuratu ahal izatea, eta bestetik, haren ingurunean ahalik eta era autonomoagoan funtzionatzea. Zehazki, eguneko zentroak 20 laguntzako lekua du eta anbulatorioko arreta-tailerrak 35entzat.

Nafarroako Gobernuak guztira 1.060.335 euro jarriko du aurten; kopuru horretatik 550.482 euro egoitzako plazetarako da, 280.648 eguneko zentrorako eta 229.205 errehabilitazio psiko-sozialeko tailerretarako.